

Herri Aldizkaria

**otomot**

2005eko maiatza 107. alea



# **Etxebizitza gehiago behar al dira?**

**KOLABORAZIOA: JOSUNE ZARANDONA**

**ELKARRIZKETAK: TXEMA GISASOLA - BATIS MAIZ**

**IZERDI PATSETAN: ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA**



# Goierri bus



Mugitegi industrialdea, 18 - 20700 URRETXU  
49 P.K. - 20230 LEGAZPI  
☎ 943 72 52 50 - Fax: 943 72 58 70

goierribus@euskalnet.net  
www.goierribus.com



## Jose Mari Iparragirre B.H.I.

Santa Barbara bidea z/g.  
20700 Urretxu  
Telefona: 943 72 14 13  
Faxa: 943 72 14 03  
Posta elektronikoa:  
jmiparragirre@edunet.es  
www.ibdinternet.com/iparragirre

Erdi mailako heziketa zikloa

### Erizain laguntzailea

Osasun familia, A-D ereduetan

Titulazioa: Erizaintzako laguntzaile-teknikaria

Iraupena: 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)

Lanbide aukerak: Ospitaleko erizain laguntzailea, lehen artapenetako laguntzailea, kontsulta pribatuetan, zaharren egoitzetan, hortz-kliniketan laguntzailea, gaixoen zaintza.



# ARGAZKI ZAHARRA



Eliz-Alde futbol zelaian duela 40 urte inguru ateratako argazkia.

Zutik: J. Araña, Sebastian Lañda, Lopez, Andoni Aranzadi, J. Laskurain eta Joseba Zumarraga.

Makurtuta: Migel Urteaga, Jose Mari Zaldua, Inazio Anduaga eta Manuel Etxaniz.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73

**Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.

**Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

**Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.

**Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.





## Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga



Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

2005eko maiatza

# KLIK ETA KLIK



# KLIK ETA KLIK



Ale honetako argazkiak Argazki Elkarteko Joxe Llorentek atera ditu.

Argazki Elkarteko Joxe Llorentek atera ditu. Argazki Elkarteko Joxe Llorentek atera ditu. Argazki Elkarteko Joxe Llorentek atera ditu.

2005eko maiatza

# HILABETE HONETAKO GAIA

## Etxebizitza gehiago b

1088 taldekoen eta bi herriotako alkateen irit



Bai argazki hau eta bai azalekoa Gotzon Aranburuk ateratakoak dira.

Gazteak kezkatzen dituen arazo bat bada, hori etxebizitzarena da. Alokairuzko etxebizitzaren eskaintza eskasa, prezio garestiak, 30 m<sup>2</sup>-ko etxebizitzak, 35 urteko hipotekak... etxebizitza beti hizpide. Kontu hauei guztiei okupazioarena gehitu zaie, etxebizitzaren arazoaren inguruan lanean diharduten 1088 taldeko kideek

Aizpurutzoko geltokia okupatu zutenetik. Talde honetako kideekin eta Anton Arbulu eta Pello Gonzalez alkate eta hirigintza batzordeburuekin hitz egiten izan gara etxebizitzaren aferari buruz. Batzuek etxebizitza hutsak erabiltzearekin nahikoa dela uste dute, besteek etxebizitza gehiago behar direla.



## MIKEL AUTOESKOLA

Lehenago leku berean, jabe berriekin  
**Anima zaitetz!**

Secundino Esnaola, 36 behea - Zumarraga  
943 72 18 33 - 667 07 43 92

Astehenetik ostiralera 9:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara

2005eko maiatza

## Behar al dira?

### ziak gazteen kezka nagusiaz

Duela hilabete batzuk herriko zuhaitz eta faroletatik zintzilik agertu ziren kartelek zeresan handia eman zuten. Gerora jakin genuen karteletan ageri zen 1088 zenbakia Urretxu eta Zumarragako etxe hutsen batu-ketaren emaitza zela eta zenbaki horrek etxebizitzaren arazoa lantzen zuen gazte talde bati izena ematen ziola. Talde horretako Jokin Lasa, Ander Kerejeta eta Pablo Pueblarekin hitz egiten izan gara etxebizitzaren arazoaz eta Aizpurutxon burutu zuten okupazioaz.

#### Nola ikusten duzue etxebizitzaren inguruko afera?

Herri guztietan dagoen arazoa da, denoi eragiten digun gai bat. Baina gehienbat gazteok sufritzen dugu, lan fikorik ez izateari prezio garestiak gehitu behar baitizkiegu. Alokairuen prezioak oso altuak dira guk ordaindu ahal izateko, eta etxe berriak 40 milioietan saltzen dira. 20 milioiko balorea duen etxearen jabeak, 30 milioitan saldu nahi badu, erraz asko izango du saltzeko. Badirudi inori ez zaiola interesatzen arazolari irtenbidea bilatzea. Ikerketek diotenez, prezioek gora egiten jarraituko dute, baina nahiz eta hori jakin, ezer gutxi egiten da igotera ekiditeko.

#### Zuek gehienbat etxe hutsen gainean egin duzue lan...

Duela hiru bat urte, arazoa ikusita, gazte batzuk elkartu ginen. Orainarte egin dugun lan gehiena propaganda izan da. Hasieran etxe hutsen zerrenda egin genuen. Hala, Urretxun 469 eta Zumarragan 619 kontatu genituen. Argazkiak atera genizkien batzuei, eta gero zenbaki hori kaleratzen ibili gara. Etxe hauek berritzea etxe berriak egitea baino errentagarriagoa litzatekeela uste dugu.

#### Baina etxe berri gehiago eraikitzen ari dira...

Egiten ari diren etxetariko asko, txaletak edo luxuzko etxeak dira eta guk behintzat ez diegu zentzurik ikusten erai-

kuntza hauei. Jendea sekulako dirutzak ari da inbertitzen etxebizitzetan eta argi gertzen da atzean sekulako negozioa dagoela. Etxebizitza, pertsona orok izan beharko lukeen eskubidea da, eta egin ezin daitekeena, batzuk sekulako etxeetan bizi diren bitartean, beste batzuk kalean edo gurasoengan egotea da. Etxeak eraikitzeke burua erabili behar da.

#### Nortzuk dira zuen ustez arazo honen erantzuleak?

Uste dugu argi dagoela zeintzuk diren erantzuleak. Hasteko, udalak dira non eta nola eraiki ahal den diotenak. Eraikitzaileentzat ere negozioa biribila da.

“Egiten ari diren etxetariko asko luxuzkoak dira eta ez diegu zentzurik ikusten”

Hauekin batera inmobiliariak daude, dirua zurgatu besterik egiten ez dutenak. Inmobiliaria batzuetan egon gara, eta ikusi ahal izan dugunez, gehienetan etxe zain zeudenen izugarriko zerrenda zuten eta saltzeko 6-7 etxe bakarrik. Eskari izugarria dago eta inmobiliariak horretaz aprobetxatzen dira.

#### Zer proposatzen duzue arazo hau konpontzeko?

Hasteko, jendea kontzientziatzea derrigorrezkoa ikusten dugu eta horretarako hitzaldiak antolatu eta panfletoak atera ditugu. Konponbide bezala, lehenik udalei alokairu merkeak jartzea eskatzen diegu. Etxe hutsei dagokienez, udalei etxe horien gaineko ikerketa sakona egitea eskatuko genioke. Azterketa hau egin ostean, etxe horietatik

## EDURNE

GIZONEZKOEN  
JANTZIDENDA ESKUZ  
ALDATU NAHI DA

☎ 943 72 14 17



Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13



ALTZARIAK  
MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28  
URRETXU

centro óptico  
JAVIER Arratibel  
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako  
tentsioaren neurketa - Graduatutako  
eta eguzkitarako betaurrekoak -  
Lentilak - Termometroak eta  
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA  
☎ 943 72 54 84



ARKUPE TABERNA

# HILABETE HONETAKO GAIA

erabilgarriak zenbat eta zein diren ondo-  
riotzatuko litzateke eta honekin jabeenga-  
na jo beharko litzateke. Hauekin ados jarri  
eta etxe horiek alokairu duin batean jar-  
tzea litzateke hurrengo urratsa. Gainera,  
babes ofizialeko etxebizitzaren legeak  
eskatzen dituen portzentaiak askotan ez  
dituzte errespetatzen. Etxeei bizia ematea  
da konponbidea. Egun etxebizitzaren kon-  
tuan enpresen esku dago, baina erakunde

publikoek agindu beharko lukete gai  
horretan.

## Zuentzat okupazioa alternatiba da.

Egun dagoen etxe huts pilarekin,  
hauetatik asko eta asko urtetan daude hu-  
tsik, ez litzateke inor kalean edo gurasoe-  
nean beste erremediorik ez duelako bizi  
behar. Edonork behar du bizitokia, eta  
bidezkoa da etxerik ez duena, batean sar-

tzea eta hori okupatzea. Hala ere, guk ez  
dugu aldarrikatzen norberak bere etxea  
okupatzea norberaren bizitoki moduan.  
Okupazioa aldarrikapen gisa burutzen da.  
Protesta modu bat da, hemen arazo bat  
dagoela onartu eta irtenbidea eskatzeko.  
Okupazioa arazoa konpondu bitarteko  
alternatiba bezala ikusten dugu, baina ez  
banakako irtenbide bezala, taldeko irten-  
bide moduan baizik.

## Hitzetatik ekintzetara: Aizpurutxoko okupazioa

1088 plataformako 20 bat lagunek  
Aizpurutxoko geltokia okupatu zuten  
duela lau hilabete. Bertan bizitzeko  
asmoz, geltokia zaharberritzen izan  
ziren Azkoitiko Udalaren aginduz  
bota zituzten arte. "Instituzioen alde-  
tik etxebizitzaren arazoa konpontze-  
ko inongo asmorik ez dagoela ikusi-  
rik, irtenbidea okupazioa dela ikusi  
dugu. Hori dela eta, duela lau hila-  
bete Aizpurutxoko geltokian sartzea  
erabaki genuen".

Urretxu-Zumarragako oku-  
pak geltokia jabego publikokoa zela-  
koan sartu ziren bertan. "Toki asko  
begiratu genituen eta, egia esan,  
herrian bertan etxe asko daude hu-  
tsik. Foru Aldundiarena zela eta gu  
handik bidaltzeko interes handirik ez  
zela izango uste genuelako hautatu  
genuen Aizpurutxoko geltokia, baina  
orain partikular batena dela jakin  
dugu".

Bizilagunen oniritziari sartu  
omen ziren geltokira. "Hasieran bizi-  
lagun batzuekin hitz egin genuen  
eta, geltokia garbituz eta berrituz  
gero, gure ekintza ondo ikusten  
zutela esan ziguten. Lau hilabete  
eman genituen etxea txukuntzen,




apirila bukaeran Azkoitiko udaltzai-  
nak abisu batekin heldu ziren arte:  
zazpi egun eman zizkiguten joateko.  
Hori ikusirik, Azkoitiko udaletxera  
joan ginen alkatearekin hitz egiteko  
asmoz. Handik hiru egunetara, biha-  
ramunerako alde egin behar genuela  
eta alkatearekin hitzartutako bilera  
bertan behera gelditu zela jakinarazi  
ziguten".

Gazteek bertan gelditzea

erabaki zuten. "Hitz egin gabe ez  
joatea erabaki eta hiru lagunek gaua  
bertan pasatu genuen. Hurrengo  
goizean udaletxeko langileak leihoak  
eta ateak adreiluz estaltzen hasi  
ziren, gu barruan ginela. Ez genien  
gau hartan bertan jarri genuen atea  
botatzen utzi eta alde egin zuten.  
Halako batean sekulako ertzaina  
pila etorri zen, atea bota zuten eta  
joatera behartu gintuzten".

Urretxu eta Zumarragako  
gazte hauen lehen okupazioa apiri-  
laren 22an zapuztu zen, baina ez  
daude amore emateko prest.  
"Batzuek Aizpurutxon bizitzaren jartze-  
ko asmoa genuen. Horretaz gain,  
baratza prestatzeko, tailertxo bat  
jartzeko... asmoa genuen. Okupazio  
hori aldarrikatzeko edo ezagutzera  
emateko asmoa ere bagenuen: oku-  
pazioa etxebizitza eskubidea aldarri-  
katzeko modu bat da, baina baita  
bizitzeko beste modu batzuk lantze-  
ko aukera ere. Etxebizitzaren arazoa  
kaleratzen eta okupatzen jarraitzeko  
asmoa dugu, udalek orain arteko  
politikarekin jarraitzen duten bitarte-  
an. Beste herri batzuetan ere okupa-  
zioak geroz eta indar handiagoa du".

**Ferretería BRAVO, S.L.**



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK  
-ELEKTRAGAIK  
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxa: 943725431 - ZUMARRAGA

2005eko maiatza



# HILABETE HONETAKO GAIA

**Anton Arbulu:**  
“Herritarren kezka handiena alokairu falta da eta hori bultzatu behar dugu”

**Nola ikusten duzu etxebizitzaren prezioaren arazoa?**

Gazte askok ezin dute etxebizitzarik erosi, ezta alokatu ere. Arrazoiak: legediak ez zuen etxebizitza hutsak alokairuan jartzen laguntzen eta ekimen pribatuak ez du alokairuzko etxeak egiteko inongo interesik izan. Zorionez, administrazioek eta aurrezki kutxek alokairuzko etxebizitzak egiteko asmoa azaldu dute. Gasteizen dagoeneko dexente egin dira, arrakastaz gainera.

**Zer egin behar du udalak datozen urteetan?**

Zumarragako udalaren kezka nagusietakoa etxebizitzarena dela esan beharra dago. Hori dela eta, AAOOen behin-behineko onarpenean etxebizitza publikoaren kudeaketan parte hartzea aurreikusten da. Egibiden, Artizan, Eitzan, Ipintzan eta Orbegozoko ikaztegiaren etxebizitzak egingo dira: babes ofizialekoak 522

**Pello González:**  
“Udalaren birkalifikazioak sortzen duen plusbalia udalarentzat izan beharko luke”

**Etxebizitzak garestiegi, bere balioaren gainetik, daudela uste al duzu zuk ere?**

Bai. Etxebizitza berriei dagokionez, ez dago merkatutik eta, beraz, garesti daude. Bigarren eskuko etxebizitzaren salneurria, berriz, beldurtzekoa da. Etxebizitza berri gutxi daudenez, jendeak bigarren eskuko erosi beharra du. Merkatu nagusia bigarren eskukoena da eta eskari handia dagoenez, oso garesti saltzen dira. Eskaria oso handia da: Sorgintzulon kontzertatutako 12 etxebizitza eskaini ditugu eta hilabeteko epean 300 lagunek izena eman dute, gehienak gazteak. Hori ikusita, gure eskaintza hauei zuzendua izan behar da batez ere. Eskari honi lehenbailehen erantzun beharra diogu, herritarrek kanpora joan beharra izan ez dezaten. Hemendik urte batzuetara etxebizitza eskaria askoz ere txikiagoa izango da seguraski, 24-30 urte bitarteko gazte kopurua askoz ere txikiagoa izango baita. Hori dela eta, hemendik urte batzuetara ez da, seguraski, horrenbeste etxe egin beharrik izango.



[www.megadenda.com](http://www.megadenda.com)

**ramos**  
Bergara, 6  
20005 Donostia  
Tel.: 943 42 63 50

**bilintx**  
Arostegieta z/g  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 67 35 33

**Fermin Calbeton, 21**  
20003 Donostia  
Tel.: 943 42 00 80  
(Jai egunetan zabalik)

**Paseo Colon, 8**  
20302 Irun  
Tel.: 943 63 17 26

**Ibargarai, 12**  
20570 Bergara  
Tel.: 943 76 40 50

**Megadenda**  
zure aukera musika eta liburutan

**tarjeta megadenda txartela**

2005eko maiatza

# HILABETE HONETAKO GAIA



## Arizmendi Ikastolako LANBIDE HEZIKETA Aurrematrikula zaitez ekainaren 1etik 8ra

### ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Erizaintzarako Laguntza Osagarriak
- Arreta Soziosanitarioa



### GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Ingurumen Kimika
- Analisia eta Kontrola
- Eraikuntzako Proiektuen Garapena eta Aplikazioa
- Obren eta Planen Burutzapena
- Kirolaren eta Ekintza Fisikoaren Animazioa

Informa zaitez!

902 11 20 25

[www.arizmendi.ikastola.net](http://www.arizmendi.ikastola.net)



**A**  
Arizmendi ikastola  
geurea, zeurea

izango dira. Baina, nire ustez, herritarren kezkarik handiena alokairu falta da eta hori bultzatu behar dugu. Herritarrek alokairuzko etxetik hasteko aukera izan behar dute: euren egoera hobetzen denean babes ofizialekoa eskuratu behar dute eta beranduago, ahal badute, sustapen librekoa.

### Alokairuzko etxebizitzak ere egiteko asmoa duzue, beraz.

Horretarako lurzoru propioa behar dugu. Kutxaren eskaintza bat dugu, baina Urolaren erantzunaren zain gaude. Nire ustez, Argixaoko anexoa oso egokia da, baina lankidetzaren hitzarmena sinatu beharra dugu Urolarekin. Eitzan egingo diren 120 etxebizitza ere alokairuzkoak izango dira eta Egibiden ere halako etxebizitzak egin nahi dira. Etxebizitza hauek 50 eta 70 m<sup>2</sup> bitartekoak izan beharko lukete, bakarrik edo bikotean bizi direnei zuzenduak baitaude.

### Batzuek etxebizitza hutsak alokairuan edo salmentan jartzearekin nahikoa dela diote.

Egia da etxebizitza hutsak daudela, baina horietariko asko zaharkituak daude eta ez dituzte beharrezko bizibaldintzak betetzen.

### Zer diozu tarteko oinei eta merkataritza-lokalei buruz?

Ez du arazoa konponduko, baina arintzen lagunduko du. Tarteko-oin gehienak etxebizitzarako moldatzeko baime-na emateko prest gaude. Etxebizitza moduan erabil daitezkeen merkataritza-lokalak gutxiago dira.

### Lurraren espekulazioari aurre egiteko modurik ba al da?

Lautadarik ez dugunez, etxebizitzak egiteko egokiak diren lursail gutxi daude. Lursail egoki horietako gehienak partikularrenak dira eta oso garestiak.

### Txaletak eginda, gainera, probetxu gutxi ateratzen zaie lursailei...

Mendizabal poligonoan 10-12 oinetako dorreak egiteko asmoa zegoen duela 20 urte. Hori gehiegizkoa iruditzen zait, baina ez litzaidake batere gaizki irudituko 6 oinetako etxeak egitea. Lurzoru eskasia duen herrialde honetan, lurra "doan" eman dugu txaletak egiteko. Nire ustez herri erdian lau oineko etxeak egin behar dira eta gainontzeko kale eta auzoetan seikoak.

### Hemendik urte batzuetara etxebizitza premia izango duten gazteen belaunaldian jaiotze-tasa txikiagoa izan zela kontuan hartuta, ez al da gehiegizkoa datozen urteetan Zumarragan 1.500 etxebizitza berri egitea?

Ez zait gehiegizkoa iruditzen, etorkizunean Zumarraga oso garrantzitsua izango baita Gipuzkoa mailan. Komunikabide bikainak ditugu, ospitala, zentro gerontologikoa... Punta-puntako osasun-zerbitzuak ditugu. Zumarraga hazi egingo da, baina horretarako etxebizitzak behar dira. Dena den, ez dut 11.000 biztanletik igotzea nahi. Ni alkate naizela, ez dut astakeriarik egiten utziko.

2005eko maiatza

# HILABETE HONETAKO GAIA

## Zer egin dezakete udalek arazo hau arintzeko?

Arau Ordezkatzaileak (AAOO) dira udalen hirigintza tresna nagusia eta orain hauek berritzeko garaia heldu da. Herri bat diseinatzea ez da lau egunetako kontua. Eskari handia dela eta, egitea aurreikusitako guztia motz gelditu da eta lehenbailehen irtenbidea topatu behar dugu: bai eskaria asetzeko eta baita salneurriak kontrolatzeko ere. Etxebizitza berri kopurua zehazteko orduan, herria haztea nahi ez dugunez, egungo beharra zein den hartu dugu kontuan. Baita hemendik urte batzuetara eskaria txikiagoa izango dela ere.

## Zer aurreikusi duzue?

Gure asmoa AAOOetan 440 etxebizitza berri aurreikustea da, hauen erdia babes ofizialekoak eta kontzertatuak izango dira. Etxebizitza hauek guztiak Ipeñarrieta-Pagoeta-Mugitegi inguruan eta herriaren iparraldean egingo dira. Asmoa ahalik eta babestutako eta kontzertatutako etxebizitza gehien egitea da, baina eraikitzaileei zenbait karga ezarri behar dizkiegula kontuan izan behar da: bide paraleloa egitea, adibidez.

## Zenbaitzuek etxebizitza berriak egiteko premiarik ez dagoela diote, hutsik dauden merkaturak jartzearekin nahikoa dela.

Badirudi etxebizitza huts asko daudela, baina alokairuan gutxi. Hori dela eta, ikerketa egiteko agindu genuen. Horren arabera, Urretxun 400 etxebizitza huts daude, baina horietatik 25 bat bakarrik erabilgarri. Erabilgarri dauden horien jabe-ei gutuna bidali zitzairen Eusko Jaurlaritzaren Alokabide programaren berri emanez eta batek edo bestek alokairuan jarri zuen. Zergatik 400 etxebizitzatik 25 soilik dauden erabilgarri? bi etxebizitza gisa ageri dena bakarra delako, ileapaindegi bezala erabiltzen delako, etxabea delako, hondatuta dagoelako... Oso gutxi dira salgai edo alokagai ez dauden etxebizitza hutsak.

## Urretxuko eraikinetako tarteko oin eta merkataritza-lokal asko hutsik daude, ordea.

Hori ere aztertu dugu eta AAOOen berritzean zenbait baldintza betetzen dituzten tarteko oinak bizitzeko erabiltzea utziko duen ordenantza sartzeko asmoa dugu. Baldintzak zeintzuk izango diren? gutxieneko altuera eta zabalera, sarrera propioa... Gure kalkuluen arabera, Urretxun aurreikusten ditugun baldintzak betetzen dituzten 30 bat lokal daude eta erabilera aldaketarengatik sor daitekeen plusbalia udalarentzat izango da. Oraingoz ez da merkataritza-lokalik birmoldatzen utziko.

## Eta lurzoruaren espekulazioari nola aurre egin?

Kontu horretan komunista samarra naiz. Izan ere, jabeak udalak bere lurzoru birkalifikatzeko asmoa duela jakin bezain pronto salneurria izugarri igotzen du eta hori ez litzateke hala izan behar: udalaren birkalifikazioak sortzen duen plusbalia udalarentzat izan beharko luke, herriarentzat.

## Eraikin altuagoak eginez ez al litzateke lortuko lurzoruaren prezioak etxebizitzaren prezioa horrenbeste ez garestitzea?

Gure hausnarketa Urretxun lurzoru falta dagoela da eta dagoen lurzoru hobeto aprobetxatu behar dela. Hori dela eta, hemendik aurrera tarte oinik eta merkataritza lokalik gabeko etxeak egitea aurreikusten dugu. Etxe berriek orain artekoen altuera izango dute gutxi gorabehera, baina bospasei etxebizitza solairu izango dituzte. Etxe-orratzak egiteko asmorik ez dugu.

## Neurri hauek guztiek prezioen orain arteko igoera izugarria gelditzea lortuko al dute?

Kontuan izan behar da hemen etxebizitza bizitza aseguru modukoa dela, inbertsio ona dela... Alemanian inork ez du etxebizitzarik erosten, denak alokairuan bizi dira. Hemendik aurrera etxebizitzaren merkaturak ez dira azken urteotako izugarriko irabaziak izango, baina merkatu librea denez, erregulazioa presio demografikoa jaisten denean emango da. Nire ustez, bi urtetan etxebizitzak egiteko beharra aseituko da.

## MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA



- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



**BAPRI**  
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,  
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13  
ZUMARRAGA



Legazpi, 5  
☎ 943 72 62 74  
ZUMARRAGA



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

2005eko maiatza



Josune Zarandona

## Diruaren izenean amen

Aurreko batean idatzizko komunikabide batean, egun etxebizitza bat erosten duten gazteak, bizitza guztirako pobre izatera kondenatuak daudela zioen artikulo bat irakurri nuen. Egia esan, zer pentsatua eman dit esaldi honek gerora, eta azkenean ondorio simple batera iritsi naiz: arrazoi guztia duela esaldi hori idatzi duenak.

Etxebizitzaren arazoaz hitz egiten da egun etengabe. Eta ez da gutxiagorako. Izan ere, egungo gizarteko arazo nagusi bilakatu da etxebizitzarena. Hori diote behintzat adituek egiten dituzten inkesten emaitzek: etxebizitza dela gizartean buruhauste gehien sortzen duen gaitako bat. Izan ere, etxebizitza zaharren jabeek berriak erosi nahi dituzte eta horretarako etxe zaharren prezioak berrien parera igotzen ari dira. Igo eta igo. Badirudi dena igotzen dela soladatak izan ezik. Eta horrela, niri behintzat, ez zaizkit kontuak ateratzen, egungo gazteen lan egoera eta baldintzak zeintzuk diren kontuan hartuta.

Arazoak arazo, Eusko Jaurlaritzak, Madrazoren zuzendaritzapean, honi irtenbide bat emateko asmotan Babes Ofizialeko Etxebizitzak "asmatu" zituen. Ez naiz ni alternatiba honi trabak jartzen hasiko orain. Babes Ofizialeko Etxeak txoi-lo galanta direla entzuten da maiz, eta batzuentzat (gehienentzat) etxebizitza bat eskuratzeko aukera bakarrenetakoa ere bilakatu da gauzak nola dauden ikusita, baina txoi-loak gutxiengo batentzat izaten jarraitzen du.

Izan ere, etxebizitza bat eskatzen duten guztien artean gutxi batzuk bakarrik dira babes Ofizialeko Etxebizitza hauetako baten jabe egiten direnak azkenean. Zozketako izen zerrendetan zure izena agertzea soilik "zorte handiko" zerbait bilakatu da. Zer esanik ez dago zozketan zure zenbakia etxe batenarekin bat datorrenean.

Hau irakurri bitartean zuetako asko eta asko, emanitzeko edo gurasoen etxetik beste etxe batera bizitzera joateko ez dagoela etxebizitza bat erosi beharrik pentsatzen ariko zarete. Eta horrela pentsatzen duzenoi arrazoi eman behar dizuet. Egia da alokairuan bizitzera joan daitekeela bat. Baina ze prezioetan? Egia da gure gizartean beste batzuetan ez bezala, ez dagoela alokairuan bizitzeko ohitura edo joerarik, baina beste alde batetik ez zait harritzen. Alokairuan dauden etxebizitzaren errentak garestiak dira oso, eta jabeen aurrean alokairuan dagoen pertsona horrek dituen eskubideak ere ez dira beste munduko ezer.

Egia da, Eusko Jaurlaritza alokairuan dauden etxebizitzekin ere hasi dela zerbait egiten, errentak merketze aldera, baina lehen esandakoa, hauek ere gutxi batzuen eskura gel-

ditzen dira azken batean.

Okupazioa. Hau litzateke etxebizitzaren arazoari aurre egiteko alternatibetatik beste bat. Okupazioaren gainean asko hitz egin da gainera azken hilabeteetan gure herrietan, Zumarraga-Urretxuko hiru gaztek Aizpurutxo auzoko eraikin bat okupatu zutela jakin zenean. Asteak eman zituzten lagun hauek etxea konpondu eta bizitzeko moduan jartzeko asmoz berau atontzen. Bertako bizilagunak ere gustura agertu ziren gazte hauen ekimenarekin. Azken batean, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbeste urtetan itxita mantendutako eraikinari bizia ematen ahalegindu ziren.

Denok dakigu hala ere nola amaitzen den istorioa. Gazteak desalojatu eta eraikina berriro ere itxita geratu da. Zenbat urte gehiagoz? Inork ez daki. Zer interes ezkutuk bultzatzen du ordea eraikin hau eta Euskal Herrian okupatuta dauden beste hainbeste hutsik mantentzera? Inori ezer eskatu gabe hasi ziren gazte hauek lanean, beraien eskubidea den zerbait lortzearren, beno, hori dio behintzat espainiar konstituzioak, denok daukagula etxebizitza duin bat edukitzeko aukera (nahiz eta hau 25 metro koadrokoa izan).

Hutsik dauden etxebizitzaren kontuarekin jarraituz, gure herrietan ere hutsik dauden pisu asko daude. Horiek jendearen eskura jarritz gero, seguru herrian etxebizitzaren inguruan dagoen arazoa zerbait behintzat hobetuko zela. Ba al daukate bi udalek honen gainean zerbait egiteko asmorik?

Sistema Kapitalista honen barruan argi dago dirua dela agintzen duena eta badirudi inor ez dagoela ezer ezerekin truke emateko prest. Ikusi da etxebizitzak edukitzeko beste alternatiba batzuk ere badaudela, seguru asko ahaztu zaizkidan hala ere. Etorkizun beltza daukagu aurretik, gauzak ez dutelako aldatuko diren itxura hartzen. Etxebizitzaren prezioek garestitzen jarraituko dute eta jendeak, prezio hauetaz kezaketen den arren, etxebizitzak erosten jarraituko du. Bien bitartean Madrazok bere Babes Ofizialeko Etxebizitzekin eta Trujillo ministroak bere 25 metro koadroko "pisuekin" arazoari "irtenbideak" ematen jarraituko dute, nahiz eta hauek errealak ez izan. Eta guk beti bezala galtzen jarraituko dugu, diruaren izenean.

Alternatibak egon badaude beraz, baina aginduan daudenek alternatiba bakar baterantz eraman nahi gaituztela dirudi gainontzekoak zapuztuz. Diruaren aginduetara beti ere. Badakizue asko daukanak gehiago nahi izaten du. Nik asko ez daukadanez nirearekin konformatu beharko dut eta bien bitartean badaezpada ere hasi naiz betirako pobre izango naizela pentsatzen... Diruaren izenean amen.

# ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

## Nola ikusten duzu etxebizitzaren kontua? Okupazioa bidezkoa iruditzen al zaizu?



**Imanol Mendiola**

Etxebizitzak garesti daudela onartu beharra dago. Bikote batek etxebizitza erosi nahi badu, biek lanean egon behar dute nahitanahiez. Gainera, jendeak etxebizitza handiak nahiago ditu. Etxeak garestiak badira, gastuak ere asko direlako da: zergak, lursaila... Irtenbidea? lursail publiko gehiago egotea.



**Fermin Cotelo**

Etxebizitzak oso garestiak dira eta, gainera, bankuek ez dituzte gauzak batera errazten. Eusko Jaurlearitzakoek asko hitz egiten dute, baina gero laguntzak emateko trabak besterik ez dituzte jartzen. Laguntza benetakoa izan beharko litzateke. Ondo iruditzen zait hutsik dauden etxeak okupatzea.



**Sagrario Legarre**

Etxebizitzak oso garesti daude guztiontzat, baina batez ere gazteentzat. Dena den, Arrasaten etxebizitzak hemen baino garestiagoak dira. Bertan lan egiten dut eta errentagarriagoa zait egunero autoan joatea bertan etxebizitza erostea baino. Irtenbidea ez da etxebizitza txikiak egitea, babes ofizialekoak edo alokairukoak egitea baizik. Etxeak okupatzea ondo iruditzen zait.



**Borja Guerreiro**

Instituzioek erantzunkizun handiagoa hartu beharko lukete kontu honetan. Bestalde, borroka mugimenduak badaude, baina euren lana eraginkorragoa izan beharko litzateke. Etxeak okupatzea ondo iruditzen zait.

Montajes e Instalaciones Eléctricas  
**HERCE**  
Electricistas. M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

**TABERNA**



**JATETXEA**

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA



**Belarzoim**

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura  
Mediku-homeopata kontsulta  
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

**Denda alokatu edo saltzen da Antzuolan Martxan dagoen argazkidenda-bitxitegia**

**943 78 70 66**  
**635 757 271**

**BIONA**

**AROTEGIA**

Altzariak neurritan

☎ eta faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU


**ETXABURU**  
merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

## Txema Gisasola, MCC

### Kooperatiben ereduaz solasean izan gara MCCko



Urretxu eta Zumarragatik askotan inbidia apur batez begiratzen dugu Arrasate aldera, kooperatiba mugimenduak inguru hartan sortu duen aberastasuna dela eta. Sarritan ez gara konturatzen egunero-egunero Debagoienara lanera joaten diren Urretxuar eta Zumarragarrek zeresan handia dutela kooperatiben arrakastan. Hauetako batzuek MCCn hartzen diren erabaki garrantzitsuenetan zeresana dute: Txema Gisasola zumarragarra esaterako. Gisasola Giza Kudeaketa zuzendaria izan da urte luzeetan eta uztailetik aurrera MCCko zazpi lehendakariordetako bat izango da.

#### **Noiz eta non hasi zinen lanean?**

Ikasle garaian hiru edo lau uda eman nituen Irizarren lanean eta, gero, Eredu enpresan aritu nintzen. Soldaduskatik etorri ondoren, Fagorrera bidali nuen nire kurrikuluma eta 1986an bertan hasi nintzen lanean.

#### **Psikologia ikasketak egin zenituen, enpresa munduan lan egiteko asmoarekin?**

Nire asmoa psikologia industrial arloan lan egitea zen eta zortea izan nuen. 1986an, 24 urterekin, pertsonal buru sartu nintzen Fagorren. Lau bat urte eman nituen postu horretan eta, gero, antolaketa, hautaketa eta formazio mundura pasatu nintzen. Hor beste bi edo hiru urte eman ondoren, oso egoera txarra bizi zuen Azpeitiko Danonara bidali ninduten giza baliabide kudeaketa zuzendari lanera. Han bost urte inguru eman ondoren, Fagorreko giza baliabide arduradun izatea eskaini zidaten. Duela lau urte, Antonio Cancelo presidentek MCCko giza baliabideen kudeaketa eskaini zidan. Orain, berriz, "Hogar" saileko buru izatea eskaini didate. "Hogar" sailean Arrasateko Fagor Electrodomesticos, Oñatiko Fagor Industrial, Frantziako Brandt, Poloniako Wrozamet eta Azpeitiko Danona eta Grumal daude, besteak beste. MCCko zazpi lehendakariordetako bat izango naiz uztailetik aurrera.

#### **Orain arte giza baliabideen kudeaketan lan egin duzu. Zer nolakoa izan da zure lana?**

Antolaketa munduan lan egin dut, baina ez ekoizpen aldetik, baizik eta pertsonen aldetik. Beti esan izan dugu garrantzitsuena pertsonak direla eta horiekin

## Cren puntaren-puntan

### lehendakariordea izango den zumarragarrarekin

aritu naiz. Egia esan, nahiko gustura ibili naiz. Taldeen antolaketan lan egin dut, baina ekonomia, finantza, estrategia... kontuak derrigor ikasi behar izan ditut. Psikologia ikasketak nahiko ahaztuta ditudan arren, erabiltzen dut psikologia.

#### Nolakoa da orain arteko zure lan eguna?

Bilera pila izaten ditut. Hiru arlo garrantzitsu jorratzen ditut: zuzendarien formazioa, baloreen munduaren berpiztea eta kooperatibak ez diren MCCren enpre-setako langileen partaidetza bultzatzea.

#### Langileekin harreman handia izango zenuen orain arte...

Bai, aurrez-aurrekoa. Beti gustatu izan zait jendearekin harremana izatea eta lan munduan ere ez dut inongo esperientzia txarrik. Gauzak norberaren ikuspuntutik

**“Ez gaude dirua irabazteko, Euskal Herrian enplegua sortzeko baizik”**

azalduz gero eta bestearen ikuspuntua kontuan izanez gero, normalean akordio batera heltzea lortzen da.

#### Sindikatuekin ere harremana izan al duzu?

Edesa erosi genuenean izan nuen harremana sindikatuekin. Polonian ere izan dugu eta, orain, Brandt-en ere izan beharko dugu. Sindikatuak negoziatzeko garaian gogor samarrak dira, baina akordio batera iritsiz gero, ez da beraiekin arazorik izaten. Guk gizarte-kontseiluak ditugu eta, nire ustez, hauen funtzionamendua hobea da sindikatuena baino. Izan ere, gizarte-kontseiluek lan baldintzei soldaten igoerari baino garrantzia handiagoa ematen diote.

#### Zuen eredia ez duzue saltzeko...

Ez dugu beste ereduak txarrak direnik esaten, baina guk geurean sinesten dugu eta onena dela uste dugu. Langileentzat nahiko positiboa dela uste dugu, nahiz eta berdin-berdin lan egin behar duten.

#### Langileen partehartzea diozuen bezain-bestekoa al da?

Partehartzea lau arlotan ematen da: kudeaketan, emaitzetan, kapitalean eta estamentu instituzionaletan. Kapitalismo munduan, ordea, akziodunak dira estamentu instituzionaletan egoten direnak.

#### Baina langile xumeek enpresa benetan eurena ikusten al dute?

Baietz uste dut. Hor eredu oso ezberdinak daude. Irizarrena oso aurreratua dago, Fagorrena ere polita da... Langileek nahiago dute kooperatiba batean lan egin, erabakirik garrantzitsuenak eurek hartzen baitituzte. Sistema, hobetu daitekeen arren, nahiko sistema ona da.

#### Giza baliabideen arloan aritu zara urte luzetan, zer eskatzen diozu langile bati?

Zintzoa izatea eta hura berarena dela kontuan izatea. Langilea gainontzeko guztiak bezala inplikatu behar da proiektuan. Gu ez gaude dirua irabazteko, Euskal Herrian enplegua sortzeko baizik. Kooperatibak denboran jasagarriak izan behar dira, epe luzean iraun behar dute.

#### Nola ikusten dituzu egungo gazteak?

Gizartea aldatu egin da, baina ez dut uste garai batekoak hobeak zirenik. Eguno gazteek ere balore onak dituzte eta prestakuntza garai batekoa baino hobea da.

#### Beharko dute gaur egungo mundu mailako kompetentziari aurre egiteko...

Guk bi helburu ditugu: orain arteko produktuarekin jarraitu, berrituz, eta beste sektore batzuetan sartu. Urtero produktu berriekin negozio bat sortzea jarri

dugu helburu.

#### Orain arteko bidea alde batera utzi behar duzu, zer nolakoa izango da hemendik aurrerako zure lana?

Oraingoa lanpostu exekutiboa da. Enpresak koordinatzen arituko naiz: kudeatzaileei eta langileei lagunduko diet eta denbora pila bat eskaini behar diot erosi berria dugun Brandt enpresari. Hango enpresa-kultura eta antolaketa aldatu behar ditugu pixkanaka-pixkanaka, bai han eta bai hemen bi erakundeek dituzten gauza onenak aprobetxatu behar ditugula uste dugu. Hurrengo bi edo hiru urteak nahiko gogorak izango dira.

#### Euskal Herriko industria jarduera MCC bezain ondo ikusten al duzu?

Ondo ikusten dut, baina familia-enpresa asko daude eta hirugarren belaunaldikoak dira enpresa hauek kudeatzen ari direnak. Hirugarren belaunaldiko hauek dena egina jaso dute eta apostu handia egin beharko dute enpresa aurrera ateratzeko.

#### Nola ikusten duzu jaioterria?

Seguran bizi naiz eta ez dut asko ezagutzen hemengo egoera. Dena den, 20 urtetik hona sekulako aldea eman da. Duela 20 urteko egoera oso txarra zen eta orain industrialdeak daude, lana badago... Deba Garaian edo beheko Goierri industria gehiago ikusten den arren, baikorra naiz. Azken batean, sekulako aldaketa eman da hemen azken urteotan.

#### MCCk ez al du Goierri Garaia etortzeko asmorik?

Kontua ez da enpresak ekartzea edo ez ekartzea. Gure filosofia egitasmo bat duen jendearekin eskuzabalak izatea da. Kooperatibak ideia bat duten eta aurrera jotzen duten langileek sortzen dituzte. Urretxu, Zumarraga eta Legazpin ez da filosofia hori egon, baina Ormaiztegin, Ordizian, Legorretan eta Arrasate inguruan bai.

## Batis Maiz, I

Santa Lutzin jaio eta Legazpin bizi den arren, Urretxu-Zumarragan burutu du nagusiki Batis Maizek bere lan jarduera. Hala, "mankomunitateko gizona" dela dio berak. Urte luzeetan Ikastolako irakasle, azken urteotan Urola Garaiko Fundazioko zuzendari, garai batean Euskal Herriko Mendi Federazioko lehendakari... mila saltsatan sartua egon da beti. Ekainean jubilatuko egingo da eta, honebestez, lasaiago bizitzeko aukera izango du. Jakingo al du?

### **Kontaiguzu zer edo zer zure bizitzari buruz, Batis.**

"Mankomunitateko gizona" naiz: Santa Lutzin jaio, Legazpin bizi, Urretxuko Ikastolan 19 urte lan egin eta orain Zumarragan. Herri guztiak pasatu ditut. Nire aita gabiriarra zen eta ama, berriz, ataundarra nuen. Beratek Santa Lutzin jarri ziren bizitzeko, udaletxeko etxean. Aita inguruotako perratzailea zen eta Patrizion lan egiten zuen. Santa Lutzin ikasi nuen, ni baino askoz ere zaharragoekin, eta 9 urte nituenean Legazpira joan ginen bizitzera. Bai Santa Lutzitik eta bai Legazpitik Medranotarren eskolara ere etortzen nintzen. 12 urterekin Seminariora joan nintzen, Legazpiko La Salletik pasatu ondoren. 22 urterekin Seminariotik irten eta fabrikari lanean hasi nintzen: bi urte egon nintzen plasticos Mel-en. Beasaingo La Sallen ikasturte bat eman ondoren, Ikastolan sartu nintzen. Bertan 19 urte eman ondoren, egitasmo hau gauzatzeari ekin nion. 6 urte kosta zitzaizgun hau martxan jartzea: 96an inauguratu

genuen eta oraintxe arte, jubilazioaren garaia iritsi den arte. Horixe da, saltoka, nire bizitza guztia.

### **Ederki laburbildu duzu, bai... Nola gogoratzen duzu haurtzarora?**

Jolas giroan, akolito lanean... ondo ibiltzen nintzen. Erljioak jartzen zituen zorroztasun beldurgarrien menpe geundela gogoratzen dut, baina giro polita genuen. Eitzako aldapa igota, zer edo zer handia zegoen susmoa genuen. Gure etxean ur korrontarik ez zegoen eta komuna etxetik kanpo zuen. Hori dela eta, Santa Lutzitik Legazpi aldera joan ginenean eta han pisua eman zigutenean, aldaketa handia izan zen: ur korrontea, dutxa, ur beroa, dendak gertu... Orain, Santa Lutzitik pasatzen naizenean "hau bai txoko polita lasai-lasai bizitzeko jarraitzeko" pentsatzen dut. Adinarekin ikuspuntua nola aldatzen den ezustekoa da. Egungo erosotasunetara ohituta, ez dakit ordukoak jasaterik izango genuen. Aita zenak eguneroko Eitzako aldapa igotzen zuen bizi-



## anankomunitateko gizona

kletan lanera joateko eta bueltan, behar bada, elurra. Ni ere bizikletan joaten nintzen Medranotarren eskolara eta kaskateko pare bat hartutakoa naiz.

### Urte asko eman zenituen Seminarioan...

Han geundela, sekulako mobida gertatu zen "Vaticano II" kontzilioaren ondorioz. Zuzen-zuzenean, gehiago ikusi gabe, apaizgintzan hastea ez zitzaidan egokia iruditu eta kanpoko gehiago probatzea erabaki nuen. Askok izan ginen modu horretan Seminarioetik irten ginenak eta kanpoan gelditzea erabaki genuenak. Askok ikasketak kanpoan bukatzea erabaki zuten, baina nik ez nuen aukerarik. Izan ere, etxean sei anaia-arreba ginen eta ama alarguna. Hori dela eta, Plasticos Mel-en lanean hasi nintzen. Han lanean ari nintzela magisteritza titulua lortzeko aukera suertatu zen. Titulu hura ateratzeko nahitanahiez Falangeko kanpamendu bat egin behar genuen eta euskaldun pila elkartu ginen bertan. Euskaldunok geure ikutua jarri genuen eta hainbat hitzaldi moztu behar izan zituzten.

### Irakaskuntzan Beasaingo La Sallen hasi zizela esan duzu...

50eko talde bat eta 51ko beste bat nituen! Tokitan daude garai hartako ratioak! Beasainen ikasturtea egin eta, soldadutza egin ondoren, Ikastolatik deitu zidaten. Ni hasi aurretik 5. maila bitarteko ikasketak soilik eskaintzen zituen Ikastolak. Juani Zabaletarekin sartu nintzen eta 5. mailako lehen promozioko haurrak hartu nituen: Iñigo Agirre, Joseba Etxeberria zena, Ixiar Garin... Askok gogoratzen ditut, hiru urte segidan eman bainituen beraiekin.

### Txikia izango zen orduan Ikastola...

Dagoeneko gorpuzten hasia zen, baina gerora egin zuen izugarritzko handitzea. Ikastola hazi zenean, fraileen gelak libratu eta bertan ikasgelak egokitu behar izan ziren. Gurasoek egiten zituzten lan guztiak, udan. Ikastolen mugimendua hala atera zen aurrera, atzetik izugarritzko jende pilaren babesa zuela.

### Baliabide gutxi, baina giro polita izango

### zenuten...

Gauza askogatik. Alde batetik, 60ko eta 70eko hamarkadako momentu politikoa eta egoera kulturala oso politak izan ziren, oso biziak. Falangeko kanpamentuan egon ginenean, politikatik aldentzea eta euskara munduan eta euskal kulturaren zentratzea erabaki genuen. Giroak merezi zuen: gazteak ginen, ideal batzuk genituen, ilusioa genuen... Hazi hori ereite-

“Juani Zabaletarekin sartu nintzen eta 5. mailako lehen promozioko haurrak hartu nituen”

ak merezi zuen, nahiz eta gure hutsuneak izan eta akatsak egin. Gainera, atzetik gurasoen eta gazteen babesa genuen eta horrek sekulako animoak ematen zizkigun. Egiten ari ginen hark arrakasta izan du eta ez ahazteko moduko etapa izan da. Hemen garai hartan gertatutako fenomeno orain Nafarroan eta Iparraldean ikusten dugu eta eskaintzen zaien babesa garrantzitsua da.

### Ez al zen lortu beste alor batzuetan baino aurrerapauso handiagoa?

Hor ere du bat dago. Askotan kolpetik ezin dira gauza asko lortu, nekei aurre egin behar zaie, eutsi, iraun... Nahiz eta gauzak lortzen denbora gehiago eman, pausoak sendo eman dira. Euskara eta Ikastola gehien hedatu diren mugimenduak izan dira, zailtasun guztien gainetik.

### Oztopoak ez ziren makalak izango...

Inspektioei genien beldurra batez ere. Askotan elizak eman duen babesa kontuan hartzekoa da. Legeak uzten zituen zirrikitu guztiak aprobetxatzen ziren egitasmoa sendotzeko. Bestalde, gu sartu ginenean ez zegoen testu libururik eta material guztia guk prestatu behar genuen.

Guztia egiteko astirik ez genuenez eta ikasleak batxilergo egiteko prestatu behar genituen, batzuetan belarriak makurtu eta gaztelaniazko testuak erabili behar genituen.

### Zu ere testugintzan aritu al zinen?

Ikusentzunezkoen mundua asko gustatzen zait eta 1977an Iñaki Etxezarreta eta biok talde zuzendariari 50.000 pezeta jartzen bazituen Euskal Herriko ibaien diapositibak aterako genituela esan genion. Hala pasatu genuen hilabete, Iñakiren koxearekin eta nik elkarte hartutako kanpin dendarekin. Denborarekin ohiko bideetara egokitu ginen, baina horrek ere baditu bere arriskuak. Zenbat eta programa zorrotzagoak, irudimena erabiltzeko eta sortzeko aukera moztu egiten da. Oreka lortzea ez da erraza eta egun ere erronka hori da. Enpresek jende sortzailea behar dute, baina nik badakit, zuk ez dakizu eta nik erakusten dizut parametroetan lan egiten duen sistemak pertsona sortzaileak ematea zaila da.

### Gizonezko bakarretakoa izango zinen hainbeste andereñoen artean...

Loiolan andereñoentzat ikastaro bat antolatu zuten eta bertara joan ginen magisteritza egindako hiru edo lau lagun. Hura andereñoentzat zela eta ez ziguten sartzen utzi, guk bazterrak nahastu besterik ez genuela egingo!

### Garai hartako andereñoek asko hitz egiten da, baina maisuak ez zaituzte inork aipatzen...

Hala da. Izan ere, gizonezkoak oso gutxi ginen. Urretxuko Ikastolan 5. maila arte denak andereñoak ziren: ni sartu nintzenean mutil bakarra nintzen. Gerora Gaspar eta Joxe Kruz sartu ziren. Gasparrekin Beasaingo La Sallen ere izan nintzen. UGLEn irakaslea den Jose Ignazio Zamorano, berriz, ikasle izan nuen La Sallen. Horrek zer esan nahi duen? zahartzen ari naizela!

### Hasierako garai haietan ikasleekin oso harreman goxoa omen zenuten...

# ZUEK BAI JAKINI!

Euskal Herriko Mendi Federazioko lehendakari izanak, 1999an Elgetan egin zitzaizen omenaldian.



Aizkorri, 1984: Telenortentzat solasean Aizkorriko aterpearen zaharbertzeari buruz.



Ni ez nintzen andereñoa, e! Andereñoek beste ikutu bat zuten. Seminariotik eta soldadutzatik pasatu ondoren, beste perfil bat nuen, zorrotzagoa. Gauza batzuetan gogor samarra nintzen. Dena den, hasierako 24 ikasle haiekin denetik egin genuen. Hasierakoak izanda, kuttunenak izan ziren. Ezkondu ginenean arku egin ziguten eta gure etxera etortzen ziren urbanoa hartuta txokolate jana egitera, kontu-kontari egotera, musika entzute-ra... Gurasoekin ere oso gertuko harremana genuen. Oso etapa polita izan zen.

## Zergatik utzi zenuen Ikastola?

Siadecok 1988an eskualde mailako ikerketa egin zuen 2010erako zer behar genukeen jakiteko. Politikoak eta industria gizonak nahiko kezkatuta zeuden Lanbide Heziketan gabeziak zeudelako. Ez lehen zeudenak txarrak zirelako, baizik eta 1969ko erreformaren ondoren "beste ezer ezin duenak, Lanbide Heziketara" ideia nagusitu zelako. Lanbide Heziketa bultzatzea erabaki zuten eta 1990ean jende bila hasi ziren. Ni saltsa askotan ibilitakoa nintzenez, horretan lan egitea eskaini zidaten eta, herri hauetarako beste zerbitzu bat zenez, baiezkoa eman nuen. Proiektua 6 hilabetetan prestatu genuen, baina 6 urte pasatu genituen egitasmoa gauzatzen.

## Zein helbururekin lan egin zenuten?

Legeak berak Batxilergoa gainditzien zuena unibertsitatera joan zitekeela zion eta gainditzien ez zuena Lanbide Heziketara. Irudi hori hautsi beharra zegoen, hemen enpresek jende prestatua behar baitzuten. Gorabehera askoren ondoren,

1996an akordioa gauzatu genuen. Oso operazioa konplexua izan zen, gu mojen eskola zenean baikaude eta Escuelas Legazpin hiru ikastetxe bildu baitziren: La Salle bera, Zumarragako mojena eta Labeagako mojena. Lasalletarrek herri hauei begira jokatu zuten eta Ikastolak ere bai, ni proiektu hau lantzen ari nintzen bitartean Ikastolan eszedentzia bainuen. Horrela egon nintzen 1998ra arte. Hemengoa gaizki joanez gero lana nuela jakiteak, lanerako patxada handia eman zidan.

## Helburuak lortu al dituzue?

Bai, baina hemendik aurrera joko den saltoa askoz ere garrantzitsuagoa izango da. Enpresa askotan langileen ordezkatzea ematen ari den momentu honetan, jaiotze-tasa bajaran eman zen urteetako gazteak sartzen ari dira lan-mundura. Alde horretatik, azken urteetako gure erronka neskak erakartzea da. Nesken artean langabezia handiagoa da eta hemen itxuraz mutilenak izan diren lanetan sartzeko eta mamu-lanak ez direla erakusteko aukera dute. Gure aukera ona dela erakusteko lan egiten ari gara. Baliabide ugari, jende prestatua... ahalegina egin dugu, baina urte batzuetara oraindik eta gorago ikusiko da gai hau.

## Zure ibilbidea ezagututa, beste helburuetako bat Lanbide Heziketan euskarari merezi duen tokia ematea izango zen...

Hori gure estatutueta jarrita dugu. Helburuetako bat hemen ematen den hezkuntza prozesu guztietan euskara ahalik eta gehien garatzea da. Pauso handia eman dugula uste dut, nahiz eta gure mugak ditu-

gun. Izan ere, irakaslearen gehiengo euskalduna da. Bestalde, euskara eskatzen duen ikasleagoa urtetik urtera gora doa. Baina baldintza ekonomikoak direnak izanda, kontzertoa ematen ez digutenetan

**“Azken txanpa luzea eta osasuntsua izateko prestatu nahi dut”**

ezin dugu euskarazko talde bat eta gaztearazko beste bat jarri. Arazo ekonomikoak daude gure nahien gainetik, baina klase askotan irakasleek euskaraz egiten dute aukera daukatenean. Bestalde, "Bai euskarari" ziurtagiria lortzeko lan egiteko asmoa dugu, euskara ikastetxeko alor guztietan garatzeko. Mekanikari prestaketarako CD-Romak bi hizkuntzatan atera ditugu, zenbait ikastetxe hainbat gai euskarara itzultzen ari gara...

## Hezkuntza mundutik kanpo ere, mila saltsatan parte hartu duzu...

Seminarioa utzi ondoren, gizarte mailako konpromisoari eutsi diot. Gazteak biltzen zituen Oargiko lehendakari izan nintzen, Izadi-Zaleak elkarteko lehen zuzendaritza taldekoa izan nintzen, Caritasen barruan Caritas Especial antolatua genuen espetxeratutako familiei laguntza emateko, Kilometroak 85eko koordinatzaile izan nintzen...

# ZUEK BAI JAKIN!

Batisek zuzendu zuen Bateginik kanpainaren barne antolatu zen Euskadi-Tottenham partidaren aurkezpena.



## Orain jubilatzeraz. Zure ekimenez izan da ala familiak zeresanik izan al du?

Neure ekimenez, urte dexente baitaramatzat martxan. 1990etik gaurdaino gauza asko bultzatu ditugu hemen, baina ez dago atsedean hartzerik. Jubilatzeak aukera ikusi dut eta fenomeno: hobea da gazte jubilatzea eta odol beroa eta berria sartu... Azken finean, hemen behar den dinamikarako oztopo izan naiteke. Apur bat nekatuta nago eta ez dut neure burua hau bultzatzeko moduan ikusten.

## Ez al zara aspertzeko beldur?

Jendeak hori esaten dit eta nik horixe nahi dudala esaten diet: lehenengo aspertzeko aukera eduki, hori askatasuna baita, eta bigarrena, aspertuta egoteaz aspertzen naizenean, aspertzen segitzeko edo zer edo zer egiteko aukera izango dut. Zaletasunak baditudanez, aspertzea ez da nire lehen kezka. Nire lehen kezka jubilatzea eta "puesta a punto" egitea da: osasun aldetik errebisioak egin, kiloak jaitsi... Azken txanpa luzea eta osasuntsua izateko prestatu.

## Zaletasunez hitz egin duzu, argazkigintza besteak beste.

6.000 diapositibatik gora izango dut. Teknologia berriak direla eta, horiek eskaneatzeko aukera, kamera digitalarekin argazkiak ateratzeko aukera... izango dut.

## Mendizalea ere bazara...

Zaletua bai, baina praktikantea ez gehiegi. Oporretan urtero Piriniotara joaten gara, baina hainbat gailurretara joateko, teknikoki, ez daukat konfiantza handirik.

Trabesietan eta pasioetan gustura ibiltzen naiz. Gainera, beti gailurretara joan beharrik ez dago!

## Mendi Federazioko lehendakaria ere izan zinen...

Hainbat proiektu izan genituen: mendizaletasuna gizarteratu, Piedrafitako mendi-aterpea egin, estatutoen onarpena, Aizkorriko aterpea konpondu... Lan hark herrietako elkarteekin eta delegazioekin harreman estua edukitzea eskatzen zuen. Askotan ezordutako lanak ziren.

## Ez al zitzaizun emaztea nazkatu?

Emaztea bakarrik ez, seme-alabak ere bai. Domina berezia merezi dute: emaztea ezagutu nuenetik beti halakoetan sartua egon naiz, umeak txikiak zirenean ni halakoetan eta bera etxekoarekin eta gainera Ikastolan lanean... Emaztea berezia izan delako eta ezagutu ninduean dagoeneko halakoa nintzelako agoantatuko zuen. Seme-alabek ere onartu eta lagundu egin dute, bestela dibortziatzeko adinako motibu bazeuden!

## Ona izan al da bai emaztea eta bai zu irakasleak izatea?

Alde batetik ona da. Izan ere, elementu eta bizimodu amankomunak dituzu. Bestetik, lana etxera eramatea ez da ona izaten. Nahiz eta irakaskuntzan egon, gai batzuetan irizpideak ez dira berak. Dena den, orokorrean ona izan da. Seme-alabek, agian, ez dute hori esango. Izan ere, aita irakaslea izateak lagunaren artean bere zailtasunak sortuko zizkien. Batez ere, semea nire gelan izan nuenean.

**ATA**  
HARATEGIA URDAITEGIA  
☎ 943 72 00 61  
Leturiatarren enparantza, 2  
ZUMARRAGA

**Keros** Enmarkatzeak  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak  
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

**PLAZAOLA**  
**ITURGINTZA**  
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA  
943 72 13 70

**colors**  
arropa informala  
Barrenkale  
Urretxu  
943 72 40 57

**UROLA**  
**ELEKTRATRESNAK**  
☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91  
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

## Aizkorri korrika z

### Zegama-Aizkorri maratoian parte hartuko

Igande honetan Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiaren laugarren edizioa izango da. Munduko Mendi Lasterketen Zirkuitorako puntuagarria den froga honek ospe handia hartu du urte gutxitan eta jende asko mendian korrikan hastea eragin du. Urretxu eta Zumarragan ere gero eta gehiago dira mendi lasterketetan parte hartzen dutenak. Zegamako frogan nahi zuten guztientzako tokirik ez den arren, 9 dira aurtengo edizioan parte hartuko duten herritarrak. Guztiekin hitz egiten izan gara lasterketa honi buruz.



**Fernando Sanchez**  
-36 urte  
-Tornularia

-Mendian korrika hastearen errua Zegama-Aizkorri lasterketak berak du. Mendian asko ibiltzen nintzen eta lagunek maratoki honetan parte hartzera animatu ninduten.

-Lehen edizioa oinez egin nuen, mendiko botekin, 8 orduko topetik behera egiteko asmoz. Orduetik urtero egin dut eta errepideko maratoia ere egin dut, baina mendian korritzea nahiago dut. Frantzia eta Espainian antolatzen diren mendiko lasterketa gehienetan parte hartzen dut. Iaz 5 ordu eta 59 minututan bukatu nuen Aizkorrikoa.

-Astero 115 kilometro inguru egiten dut urte guztian zehar. Astean 6 egunetan entrenatzen dut mendian, normalean ordu eta erdi inguru. Astean behin,

ordea, lau orduko entrenamendua egiten saiatzen naiz.  
-Aurtengo nire helburu nagusia Mont Blanc korrikan igotzea da, frantses batek duen errekorra hausteko asmoz. Bestalde, udazkenean Irimo egun batean 17 aldiz igotzeko asmoa dut: itsasotik Everest gailurrera dagoen desnibela gainditu arte.



**Oier Plazaola**  
-27 urte  
-Okina

-Andoni Ormazabal eta biok urtero udan elkarrekin mendira joaten gara eta urtean zehar denetik egiten dugu motibaziori eusteko: bi duatloi, Berako mendi lasterketa, Behobia-Donostia... Aurten, lehenengoz, Zegama-Aizkorri maratoia egitea erabaki dugu.

-Mendian oso korrika gutxi egin dugunez, Aizkorri gure


helburua bukatzea izango da. Izan ere, gure helburu nagusia udan Mont Blanc eta Cervino mendiak igotzea eta inguru hartan eskalada egitea da. Urte guztia gauza bera egiten emango bagenu, aspertu egingo ginatke.



**Oier Zabala**  
-22 urte  
-Ingeniaria

-Aurten hasi naiz lasterketetan parte hartzen, nahiz eta umetan ere atletismoa egin nuen. Orain arte Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia eta Berako mendi maratoi erdia egin ditut.

-Astean 3 edo 4 aldiz joaten naiz mendira, bi ordu eta erdi inguru eguneko. Geroz eta hobeto nenbilela ikusi nuen, ezagunek izena eman zuten eta Aizkorriko maratoian parte hartzera tentatu ninduten. Egia esan, aurreko urteetan ikustera joana naiz eta buruan banuen parte hartzeko asmoa.



**Gorka Azkarate**  
-27 urte  
-Ingeniaria

-Mendira joateko entrenamendu moduan hasi nintzen korri-

ka egiten, duela lau bat urte.  
-Errepidean Behobia-Donostia, Donostiako maratoia eta Azkoitia-Azpeitia egin ditut, besteak beste. Lehen mendi lasterketa, berriz, aurtengo Aloñako Igoera izan da. Ondo moldatu nintzen.

-Maiatzaren 2an Zegama-Aizkorri maratoiko ibilbide ia guztia oinez egin nuen eta sufritu egingo dudala oso argi dut. Bukatzeko asmoz joango naiz.

-Azken bi hilabete eta erditan egunero ordubete entrenatzen saiatu naiz. Asteburuetan, berriz, ibilaldi luzeak edo 20 kilometroko korrika saioak egin ditut.

-Ez gaudela burutik sano esaten digute, baina Zegama-Aizkorri maratoiak ez dauka zertan errepidekoa baino gogorragoa izan beharrik. Dena den, ez dakit zer egingo dugun azkenean...

-Aizkorri ingurua berez oso berezia da eta maratoi egunean oso giro berezia sortzen da, gainera. Horrek bultzatu ninduen parte hartzera.



**Iñaki Ganuza**  
-43 urte  
-Kamioilaria

-Hasieran atletismoa egiten nuen, gero bizikletan ibili nintzen eta ondoren motorrean. Azkenik, korrikan hasi nintzen berriro. Mendian korrika egiten

## Beharkatzeko prest

### Ordutan 9 herritarrekin hitz egiten izan gara

duela lau bat urte hasi nintzen. -Errepidean maratoi asko egin ditut, onena hiru ordutan. Neguan, berriz, kross egiten dut. Horregatik erabaki nuen mendiko lasterketetan parte hartzea, antzekoak baitira. Aizkorrikoa urtero egin dut. -Aizkorri orain arte egin dudana denbora onena 5 ordu eta 15 minutukoa da. Aurten bost ordu azpitik egin nahi dut. Horretarako, lasai irten behar da eta behin Aizkorri pasata egurra eman. Azken 12 kilometroak aldapa behera dira eta horra ondo heldu behar da. -Errepidean korritzea mendian korritzea baino gogorragoa da, beti erritmo berbera eraman behar baita. -Urtean 3.000 bat kilometro egiten ditut. Aizkorrikoa presatzeko bi ordu inguru entrenatu dut egunero, baina igandean lau bat ordu egiten ditut. -Emaztea beti haserre izaten dut korrika kontua dela eta, baina kontu honek "engantxatu" egiten du.



**Andoni Ormazabal**  
-26 urte  
-Fisioterapeuta

-Mendian betidanik ibili gara, baina aurten hasi gara lasterketetan. Gorka Quevedok badu erru apur bat, berak tentatu baikaitu. Gainera, iaz Zegama-Aizkorri maratoia ikusten izan ginen, sekulako giroa ikusi

genuen eta inbidia piztu zaigu. -Oier Plazaolak eta biok bi duatloi, Berako medi maratoi erdia eta raid bat egin ditugu. Udako mendi irteera prestatzeko erabaki dugu Aizkorriko maratoia eta froga hauek guztiak egitea, bestela kosta egiten baitzaigu urte guztian zehar entrenatzea. Lasterketa hauek prestatzeko ez dugu entrenamendu berezirik egin, baina egunero mendira joaten saiatzen gara. -Gure helburua bukatzea da. Ametsa 6 ordutan egitea da, baina oso zaila ikusten dut.



**Gorka Quevedo**  
-26 urte  
-Kazetaria

-1997an lehenengo aldiz Behobia-Donostia lasterketa egin nuen eta ordutik bederatzia maratoi erdi egin ditut. Zer edo zer gehiago nahi nuen eta 2003an Donostiako maratoia egin nuen. Hurrengo erronka Aizkorrikoa egitea zen eta iaz egin nuen lehenengoz. Oso gaizki pasatu nuela oroitzen dut, baina merezi du. Fisikoki egin dezakegunaren mugan dago eta norberaren burua eza-gutzeko balio du. -Iaz 6 ordu eta 50 minututan egin nuen eta aurten sei ordu ingurutan egin nahi dut. Baita ahalik eta ondoen pasatu eta bukatu ere. -Astean 5 edo 6 aldiz entrena-

tzen eta astean behin entrenamendu gogorra egiten saiatzen naiz.



**Mikel Navarro**  
-31 urte  
-Muntatzailea

-Mendi mundutik nator. Beti ibili naiz mendian korrikan eta duela urte batzuk raid-etan ere parte hartzen nuen. Aizkorriko maratoia lehenengoz antolatuta zutenean, mendi irteerak presatzeko asmoz joan nintzen. Aurreneko urte hartan mendizaleak joan ginen, baina azken urte hauetan atletismo, duatloi eta triatloi munduko jendea ere joaten da.

-Iaz denbora polita egiteko asmoa nuen, baina esginzea egin nuen eta ez nuen parte hartzerik izan. Aurtengo helburua bost ordutik dextente jaitea da. Ezer txarrak gertatzen ez bada, nire denborarik onena (bost ordutik beherakoa) hobetuko dudala argi dut.

-Mendian entrenatzea oso gogorra da gorputzarentzat. Hori dela eta, bi egunetik behin soilik entrenatzen dut mendian. Sekula ez zait errepidean korrika egitea gustatu eta dagoeneko honetan hasi naiz. Lehen mendi lasterketak presatzeko ziren niretzat eta orain helburua dira. Abendutik jo eta su entrenatzen nabil eta dagoeneko lehiaketetan nabil batez ere. Martxoan "Pierra Menta"

eski travesia famatuan izan ginen.



**Juaninazio Senosiain**  
-36 urte  
-Mekanikaria

-Mendizale hutsa nintzen, baina neguan eguna oso motza denez, errepidean korrika hasi nintzen. Ordutik Behobia-Donostia bospasei aldiz egin dut eta Donostiako maratoia bi aldiz, besteak beste. Beitia Martxa geroz eta azkarrago egiten genuen, azkenean korrika bukatu genuen, eta Aizkorrikoa atera zenean hara joatea erabaki nuen.

-Bigarren edizioan parte hartu nuen lehenengoz eta 5 ordu eta 2 minututan bukatu nuen. Iaz bi aste faltan lesionatu egin nintzen eta ezin izan nintzen joan. Aurtengo helburua bukatzea da. Hori bai, erdibidea ondo pasatzen badut, egurra ematen saiatuko naiz.

-Astean laupabost aldiz ateratzen naiz entrenatzera. Normalean errepidean entrenatzen dut, mendira entrenamendu luzeak egitera joaten naiz espreski. Nire aurtengo erronka bakarria Aizkorrikoa da.

-Afizioak bultzatzen gaitu hau egitera. Korrika hasi nintzenean hau egingo nuela esango balidate, ez nuke sinistuko. Lehen maratoia amaitu ostean, azkena izango zela esan nuen.



## Polo Rodríguez

Mairi emakumeen elkarteko lehendakaria Palentziako Autilla del Pino herrian jaio zen. Euskal Herrira lehenengoz etorri zenean, anaiaren etxera, egun bere senarra dena ezagutu zuen. "Handik bi urtetara ezkondu ginen eta hona etorri nintzen bizitzera. Ia 13 urtetan Ormaiztegin bizi ondoren, 1991n, Urretxura etorri ginen".

Handik urte batzuetara Mairi emakume elkarteko bazkide egitea erabaki zuen. "Urretxura bizitzera etorri ginenean, bizilagun batek Mairik antolatzen dituen ekintzetan parte hartzera animatu ninduen; hala lagunak egingo nituela-eta. Elkarteko giroa gustatu zitzaidanez, bazkide egitea erabaki nuen. Mairin lagun asko egin ditut eta, gainera,

ikastaroetan asko ikasi dut".

Polok herriko emakumeak eurekin bat egitera animatu nahi ditu. "Ez daitezela lotsatu. Gutako asko ere erreparo apur batekin etorri ginen, baina gero primeran moldatu gara. Izan ere, gure arteko harremana primerakoa da". Duela hiru urte Polok Mairiko lehendakari kargua hartu zuen. "Zuzendaritzan lan handia egin behar da, baina gustura gabiltza".

Mairiren egungo zuzendaritzaren ekimen nagusia euskara ikastaroaren antolaketa izan da. "24 lagunek izena eman dugu eta, Udalen babesla lortzen badugu, uda ondoren ikastaroarekin jarraitzeko asmoa dugu. Izan ere, oso gustura gabiltza. Ikasturteari amaiera emateko Zumalakarregi museora joan behar dugu eta azalpenak euskara hutsean emateko eskatu dugu".

Mairiko beste kide asko bezala, Polo etxeoandrea da. "Sekula ez dut etxetik kanpo lan egin. Etxekoandreaen lana oso gogorra da, etxea eta diru kontuak eramatea ez baita batera erraza. Lan handia egin dugu, baina ez dut uste gizarteak eta instituzioek gure lana behar bezainbeste estimatzen dutenik. Eskerrak, nire etxean behintzat, egiten dudana eskertzen didaten".

### **-Zer izan nahi zenuen umetan?**

Ileapaintzailea.

### **-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?**

Ehoziriak eta eskulanak.

### **-Bizitzeko toki bat?**

Urretxu, oso gustura bainago hemen.

### **-Etxekoandre izatearen gauzarik gogorrena?**

Egunero lan bera egin beharra.

### **-Eta xamurrena?**

Maite dituzun horientzat lan egitea eta egindako lana eskertzen dizutela jakitea.

### **-Zer da gogorragoa, etxea eramatea ala emakume elkarte eramatea?**

Elkarteko lana gogorragoa da, hemengo diru kontuak eramatea zailagoa baita.

### **-Nori emango zenioke saria emakumeen alde egiten duen lanagatik?**

Gure bazkideei, beraiei esker egiten baitu aurrera elkarrekin.

### **-Eta nor zigortuko zenuke?**

Ez gara horren gaiztoak...

### **-Ileheriak ala beltzaranak?**

Beltzaranak.

### **-Egindako azken oparia?**

Iloba baten alabarentzako egin nuen gona handia.

### **-Eta jasotakoa?**

Perikito pareta.

### **-Data bat?**

Alabaren jaiotza eguna.

### **-Neska eta mutil izen bana?**

Yovana, alabarena, eta Juanjo, ilobarena.

### **-Zein egunkari irakurtzen duzu?**

"Goierriko Hitza" egunero heltzen da elkartera eta egunero irakurtzen dugu euskara ikastaroan.

### **-Gustuko telebista saioa?**

Zuzeneko musika saioak dituztenak.

### **-Bereziki gorroto duzuna?**

"Gran Hermano" eta antzerakoak.

### **-Liburu bat?**

Aspalditik irakurtzekotan naizen "No sin mi hija".

### **-Filme bat?**

"El jardín de la alegría".

### **-Soinu bat?**

Nire perikitoen kantua esan beharko dut...

### **-Usain bat?**

Larrosarena.

### **-Janari bat?**

Piper beteak.

### **-Ura ala...**

Ardo latz ona.

# autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako mintegiak



Informatzeko eta izena emateko:

**902 252 595**

[www.miramondigital.com](http://www.miramondigital.com)

[cursos@miramondigital.com](mailto:cursos@miramondigital.com)



## Nola ezarri Merkataritza Elektronikorako sistemak

Ekainak 9

Erosteke eta saltzeko Internetek aukera asko ematen dizkizu. Negozio edo enpresa txikia baduzu, Merkataritza Elektronikorako sistemak nola aplikatu ditzakezun azalduko dizugu eta **nola baliatu Internet zure produktua segurtasun eta konfiantza osoz saltzeko.**

**Goierri - Urola Garaia**  
ORDIZIA Goierri Lanbide Eskola  
Ordutegia: **18:00 - 20:00**

Antolatzailea:



**Miramón**  
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa





## SUKALDE ERAKUSKETA



Ipeñarrieta, 5  
☎ 943 72 50 75  
URRETXU

San Lorenzo, 1  
☎ 943 53 35 48  
OÑATI

Udala enparantza  
☎ 943 79 00 43  
ARRASATE